GOBERNU BATZARRA

2017. 01. 23

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar

Idazkaria:

Jose Luis Unanue Ugalde

Kontuhartzailetza:

Ainhoa Molinos Zubiaurre

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urtarrilaren hogeita hiruan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.-Tolosako Oriaburu eraikineko fatxadak eraberritzeko obren esleipena/ Adjudicación de las obras de "Rehabilitación de las fachadas del edificio de Oriaburu" en Tolosa.

3.- 2015ko tokiko enplegu plana.

4.- 2016-17ko tokiko enplegu plana.

5.- 44 eta 45/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko urtarrilaren 16an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.-Tolosako Oriaburu eraikineko fatxadak eraberritzeko obren esleipena/ Adjudicación de las obras de "Rehabilitación de las fachadas del edificio de Oriaburu" en Tolosa.

Gaia hurrengu Gobernu Batzarrean tratatuko da.

3.- 2015ko tokiko enplegu plana.

Enplegu planeko likidapenaren berri eman da Ekonomia sustatzeko batzordean. Beraz, hiru enpresei egin zitzaizkien aldaketak; batetik, Liburudenda Aitziber Zenzano eta M.ª

Jesús Oñatibia enpresei, hasiera batean aurreikusitako diru kopurua baina gastu gehiago izan zituztela justifikatu zutelako, diru kopuru handiagoa ordaindu zitzaien.

Bestetik, Itxasi Alimentación & Hostelería enpresari 4.200€ ordaindu zitzaion laguntzaren (6.000) € %70. Honek, 2016ko uztailaren 26an dokumentazioa entregatzean, 4.515,02€-ko gastua aurkeztu zuen 2015eko azaroaren 23tik 2016ko urtarrilaren 31ra arteko kontratazioagatik, lehendik sei hilabeteko kontratazioagatik 11.387,20€-ko aurreikuspena izanik.

Aipatutakoa kontuan izanik eta Ekonomia sustatzeko batzordeak jaulki duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Itxasi Alimentación & Hosteleria, S.L., enpresaren dirulaguntzaren zenbatekoa behin betiko 2.287,29€-tan uztea.

BIGARRENA.- Itxasi Alimentación & Hosteleria, S.L., enpresari 1.912,71€ itzultzeko eskatzea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailetza departamentuari.

4.- 2016-17ko tokiko enplegu plana.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak onartu zuen Enplegu Sustapeneko Tokiko Ekintzetarako Laguntza-deialdia, zeina Lanbideko Administrazio Kontseiluak onartu zuen 2016ko ekainaren 15ean egindako bilkuran (2016ko ekainaren 16an argitaratu zen EHAOn).

Tolosako Udalak 342.960,23 euroko programa bat aurkeztu zuen 2016ko abuztuaren 22an.

Hau dela eta, Ekonomia sustatzeko batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- Ondoren aipatzen den enpresari dirulaguntza hau ematea, beti ere azalpen zatian aipatutako programan xedatzen diren baldintzak eta gauzatuko diren hitzarmenean jarritakoak betetzen badu.

Enpresa	Kontratu kopurua	Kontratu iraupena	Lanaldia	Dirulaguntza
Euro Model Modelos para fundición, S.L.	1	6 hilabete	Osoa	5.535,91€

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Enplegu departamentuari, Kontuhartzailetzari eta interesatuari.

5.- 44 eta 45/2016 zenbakia duten faktura-zerrendak.

Kontuhartzailetzak **44/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **4.234,07 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 44/2016 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

.-

Kontuhartzailetzak **45/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **198.332,13 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- 45/2016 faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailetzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA **IDAZKARIA**